

Ikaskuntza eta produkzio kolektiboaren inguruneak sarean:

Espainiar testuinguru sortzailean paradigma-aldaketa bat argitzen Zuloark-en kasuaren bitartez

Laburpena: Interneten zabaltzearekin batera, Espainian (1997-2002) hainbat kolektibo sortzaile jaio ziren. Haien esperientzia eta diskurtsoak paradigma-aldaketa bat ekarri du produkzio-ikaskuntza erlazioan, akademikoa, homogeneoa eta homologatua denaren aurrean posizio disidenteak planteatuz eta aro garaikidean jasotzen diren kondizioen inguruan hausnartuz, non eta zelan transmititzen den jakintza eguneratzeko eta sarbidea, sarea, hackeatu edo partekatu bezalako kontzeptu gakoak txertatzeko.

Abstract: During the Internet boom (1997-2002) some communities linked to cultural research and production emerged in Spain replicating in their organization/work methodologies certain patterns analogous to Internet's principles. Their experiences and philosophy raised dissenting positions to the Academia reflecting on the conditions of contemporaneity with the aim of updating how and where knowledge is produced and transmitted, and introducing some keywords such as access, network, hacking or share.



Enrique Espinosa Pérez

PKMN architectures-en kofundatzailea, ikertzailea eta irakasle asoziatua Madrileko AGETko CoLaboratorio irakaskuntza unitatean.

Bidaltze data: 2016-04-06

Onartze data: 2016-05-04

Gako-hitzak: Ikaskuntza, Produkzioa, Sarea, Lana, Kolektiboa, Komunitatea

Keywords: Teaching, Production, Network, Work, Collective, Community



Internet 1990ean jaio zen, eta hiru urte geroago, 1993an, domeinu publikokoa bilakatu zen, Expo'92 edo Bartzelonako olinpiadak igaro eta hilabete gutxi batzuen ondoren. 90eko hamarkada bukaeraren eta XXI. mendearen hasieran, Internet-ek modu izugarri azkar batean eboluzionatu zuen eta izaera eksklusiboa izatetik, erabilerraztasun unibertsala eta izaera arrunt bat zeukan komunikazio-tresna eta espazio bilakatu zen. 1996an 50.000 erabiltzaile baino ez zeuden Espainia mailan, zazpi urte beranduago ordea, 2003an, erabiltzaile kopurua 10 milioira iritsi zen. Hazkuntza espontzial hori eta Interneten zabaltzea sare globalaren historian gakoak izan diren zenbait fenomenorekin bat dator, adibidez, .com-en krisiarekin (1999-2001) edo p2p sareen agerpenarekin (adibide argizat Napster har genezake, zein 1999-2001 bitartean egon zen aktiboan) eta web 2.0-rekin 2004an. 2001 hasieran Wikipedia kaleratu zen, eta adibide paradigmatico bat da sareak hasieran sortu zituen (informazio) ekoizle-konsumitzaile logiken eta prosumitzaileago, parte-hartzaileago eta irekiagoak diren logika batzuen arteko trantsizioan, non inteligentzia (eta akzio) kolektiboak esperimentaziorako eta jakintzaren eraikuntzarako agertoki indartsuagoak posible egin zituen¹.

Baina, zer da Internet? 2005eko martxoaren 17ko Microsiervo web atariko artikularen arabera, Internet «maila globalean elkarri eragiten eta modu kooperatiboan informazioa publikatzen eta antolatzen duen informazio, pertsona, ordenagailu eta software multzorik handiena da». Baina zer du interesgarri Internetek? Egituren arteko analogia, kondizioak eta aldi berean, edo desfase txiki batekin bai-

na sare globalaren propioa den feedbackarekin, sorturiko irakaskuntza-egituretan garatutako fenomeno kolektiboekin sareak berak dituen interakzio-metodologiak.

Egitura kolektiboen barnean, erlazio pertsonal eta profesionalen kondizio nagusietako bat horizontaltasuna edo parekidetasuna da, hori Interneteko p2p (peer to peer) egiturekin dago erlazionatuta. Horiek egitura hierarkikoei antagonikoak zaizkien kondizioak manifestatzen dituzte, bai botere- eta funtzionamendu-kondizioetan baita irakaskuntzaren norabidean ere. Egitura kolektibo horiek jakintza kolonizatzailearen² transmisioaren logiketatik urruntzen dira eta Lev Vygotskiren «gertuko zonako garapen»aren ildoko kooperazio eta erantzunkidetasunaren printzipioetara gerturaten dira.


Milurteko-aldaketan kultura eta sormenaren esparruan agertutako fenomeno kolektiboari buruzko historia labur bat

1998an Zemos98 kolektiboa jaio zen eta 1999ko urtarri-lean izen bera zeukan jaialdi bat antolatu zuten. Oinarrian, audiobisualen markora bideratuta zegoen arren, hasiera batetik egon zen ikaskuntza esperientzial eta kolektiborako espazio bat eratzeko ideiarekin konektatua. Gaur egun Zemos98 kultura librearen eta berrikuntza sozialaren esparruan lan egiten duen kolektibo bat da.

2001 ean, ingurune unibertsitarioari lotuta, Zuloark eta Ba-

² «Irakasleen eta ikasleen arteko erlazioak, alderdi askotan, aurrekari batzuen antzekoak ez ote diren galdetzen diot neure buruari (kolonizatzaile-kolonizatu, goi-mailako zibilizazio – behe-mailako zibilizazio). Izan ere, haien artean dagoen distantzia kultura ezberdineko bi herrialderen artekoa bezalakoak baita». Emile Durkheim, *La educación moral*, 1902.

¹ David Ugartek *Los futuros que vienen* liburuan azaltzen duenaren arabera, 1999an baita, sare globalaren historian inflexio-puntu bat, Seattleko bataila, Al Qaedaen jaiotzak eta alibaba.com-en sorkuntzak ere du leku.



Irudia ~ WorldWide Internet Users.
Egilea ~ Juuso Känkänen.

surama arkitektura-kolektiboak sortu ziren Madrilan, eta Hackitectura Sevillan. (2000n Madrileko AGETn Grupo de Exploración Proyectual —GEP— sortu zen Andrés Pereak, Izaskun Chinchillak, Andrés Jaquak, Paula Montoyak eta Rafa Torrelak koordinatuta, hasieratik planteatu zuten espazio unibertsarioa esperimintazio, produkzio eta ikaskuntza kolektiborako testuinguru gisa).

2001 eta 2003 urteen bitartean, Amasté (2001, Bilbo), Platoniq (2002, Bartzelona), Las Indias Electrónicas (2002) edo Yproductions (2003, Barcelona) ikerketa, bitartekaritza eta produkzio kulturaleko kolektiboak osatu ziren. Horrez gain, Medialab-Madrid-ek ko-ikaskuntza eta ko-produkzio hiritar-erako instituzio bezala jardun izan du 2002tik.

Kolektibo horiek guztiek kultura, espazioa, praktika irekiak, ikaskuntza edo bitartekaritza ikertu eta lantzen dituzte hiria konektatzen duen espazioan. Guztien batez bezteko adina hamar urte baino gehiagokoa da. Gutxienez erdiek aktibo jarraitzen dute eta gainerako gehienek beste egitura kolektibo berri batzuk sortu dituzte edo beste ingurugiro multi-partehartzailerako batzuetan hartu izan dute parte (adibidez, Platoniq-ek Goteo proiektua zuzendu du 2010etik hona, Amasté SL bat izatetik Colaborabora izeneko iniziatiba sozialeko kooperatiba izatera eraldatu zen 2013an, edo Zuloark-ek edo Basuramak Madrileko Campo de Cebada espazio zibikoko agente aktibo bezala parte hartu izan dute 2011tik).

Horrez gain, talde horietako gehienek edo horietan parte hartzen duten zenbait kidek, modu jarraitu batean, inguru hauetako barne-kanpo komunikazio eta erlazio eta hauen printzipio propioei buruz, metaproiektuak diren, autogo-

goetak egin dituzte (Copylove³ proiektua «Lehen pertsonan gauzaturiko ikerketa bat da, zeinek bizi izandako esperientzietatik beraien praktika eta egiteko moduetatik komunitate osoarentzat ondasun komunak sortzen dituzten eragileen komunitateetan ezartzen diren lotura eta erlazioak zeintzuk diren argitu nahi duen» bezala autodefinitzen da, Zemos98, Colaborabora edo Yproductions-ek koordinatuta. «#10openkult: Kode irekiko praktika kulturaren dekalogoak»⁴ ere Zemos98, Colaborabora edo Yproductions-ek garatutako proiektu bat da, beste zazpi ikertzaileekin batera, *booksprint* formatuan. Beste adibide esanguratsu bat praktika kolektiboak berrikusi eta ebaluatzeko urtero egiten diren Zuloark-en kongresuak dira).

Ikerketa-kasu bat: Zuloark eta komunitate bezala haren kontsiderazioa, David de Ugartek proposatutako oinarri definitorioen arabera⁵

Kontsensu infantil eta baldara bilatu beharrean, aurrerantzean disentsua eta existentzia singularren produkzioa landuko da.

Felix Guattari,

Las tres ecologías, Valentzia, Pre-textos, 1990.

Zuloark ez da pertsona multzo soil bat, baizik eta identitate komun bat eta komunitate baten inguruko gobernantza-modelo bat. Zentzu horretan, kolektibo bat beste egitura

3 <<http://www.copylove.cc/>>.

4 <<http://root.ps/download/estrategiasconjuntas/10openkult.pdf>>.

5 Kasu hau doktoradutza-ikerketa bezala garatu izan da metodologia etnografikoen bitartez, 2011tik hona egin izan diren aurrez aurreko elkarrizketen bitartez garatua eta artikulu honetarako dokumentu klabe bezala 2011n Campo de Cebadan grabaturiko elkarrizketa hartuz. Artikuluaren epigrafeak bibliografian aipatzen den David de Ugartek 2009an kaleratutako liburuari egiten dio erreferentzia.



<p>Makoko Facades Adaptability allows emergent forms, but the overall structure remains a Makoko framework structure.</p>	<p>Makoko Foundations & Structure Concrete supports in Makoko support emergent forms of building that respond to the unique water level.</p>	<p>Palm Pushing-Flood & Rowing Stick Makoko uses a simple design to row using the large palm leaf of the Makoko. This design is for rowing.</p>	<p>Sand Diving-Miners Community The sand diving community in Lagos is a community that is all about sand diving. This design is for sand diving.</p>	<p>Carpenters Shore with Floating Stock The carpenters in Lagos are a community that is all about carpentry. This design is for carpentry.</p>	<p>The Flowerman Strategy The flowerman strategy is a community that is all about flowers. This design is for flowers.</p>	<p>Nigerian Chief Nigeria is a country with a rich cultural heritage. This design is for Nigeria.</p>
<p>Rice Bag Patchwork Sails Rice bag patchwork sails are a community that is all about rice. This design is for rice.</p>	<p>Floating Logs Islands Floating logs islands are a community that is all about logs. This design is for logs.</p>	<p>Rice Bag Patchwork Sail Tent (3rd life) Rice bag patchwork sail tents are a community that is all about rice. This design is for rice.</p>	<p>Face Scaffolding Face scaffolding is a community that is all about faces. This design is for faces.</p>	<p>Caro Craftsmen Community Caro craftsmen community is a community that is all about caro. This design is for caro.</p>	<p>Ads & Warnings on Walls Ads and warnings on walls are a community that is all about ads and warnings. This design is for ads and warnings.</p>	<p>Art Dealer Art dealers are a community that is all about art. This design is for art.</p>
<p>Bamboo Urban Furniture Bamboo urban furniture is a community that is all about bamboo. This design is for bamboo.</p>	<p>Canal Stations Canal stations are a community that is all about canals. This design is for canals.</p>	<p>Flower Vending Kiosks Flower vending kiosks are a community that is all about flowers. This design is for flowers.</p>	<p>Pop-up Market Ramps Pop-up market ramps are a community that is all about markets. This design is for markets.</p>	<p>Bike Repair Centers Bike repair centers are a community that is all about bikes. This design is for bikes.</p>	<p>Social Upcycling Infrastructures Social upcycling infrastructures are a community that is all about social upcycling. This design is for social upcycling.</p>	<p>Renewable Energy Islands Renewable energy islands are a community that is all about renewable energy. This design is for renewable energy.</p>

produktibo batzuetatik bereizten duten bi kondizio agertzen dira: identitate kolektibo bat eta taldearen izena partaiden izenari gainjartzen dion talde-autoretza bat, zein uni-bertsitateko lantaldeen dinamikaz baliatzen den prozesuak optimizatzen. Zuloark egitura ekonomiko solidario batean diharduen sare banatu eta ez-hierarkiko bat da, non inplikazio- eta konpromiso-maila ezberdinak dauden. Zuloarken komunitate basikoa Matrioska honen bihotza bezalakoa da.

Zuloark ez da tresna edo zerbitzu jakin batzuen erabilera-gatik definitzen, baizik eta bere oinarri genetikoan hasieratik azaldu zen identitate kolektibo batengatik: modu posibilista eta inklusibo batean bere lan-metodologia eta diziplina-interesen inguruko esperimentazioei buruz eta talde irekiko lan kolaboratiboek buruz hausnartzen duen entitate baten kondizio propioa. Gaur egun, Zuloark-ek sortzen dituen eduki gehienek espazio publikoan egindako lanekin zerikusia duten arren, taldearen hasieran aisialdi eta produktibitatearen konbinazioak kolektiboak defini lezakeen kondizio operatibo bat izan liteke. Kondizio eta interesen aldaketa hauek taldearen izaera ebolutibo eta moldagarriaren isla dira.

Zuloark-en gobernantza-modeloa ez da botazio-sistema simple batean oinarritzen, baizik eta interakzio- eta erabakitze-espazio konplexuagoetan, bai eguneroko kasuetan baita denboran banatuago aurkitzen diren momentuetan ere, urteroko kongresuetan bezala. Erabakiak hartzerako orduan, hierarkia aldakorak edo rolen trukaketak bezalako metodologia produktiboak erabiltzen dituzte, baina baita gaitasunen indartzea eta konbinazioa ere (honi dagokionez, beraiek «4 miragarri»-en erreferentzia aipatu ohi dute, non taldekideen batuketaren emaitza batura aritmetikoa baino gehiago den, «bi gehi bi berdin bost» delako hori). Lan modelo honek Interneteko egitura banatuekin erlazioa eta paralelotasuna du. Zuloark-ek zeinbat egitura-forma hartzen ditu aldi berean, baina haietako bat egoitza transnasionaletan modu bateratuan operatzen duen nodo-sare batena da, lan gehiena hiri fisikoan egiten duen arren. Nodoen arteko komunikazioa kolektiboaren demos-aren (edo egitura, kondizio eta lan- eta erlazio-metodologia batzuk dituen komunitatearen oinarria) eraikuntzaren paraleloa da.

Zuloark P2P (pareen arteko trukea trukean oinarritzen den ikasketa-ingurune bat da, bai barne-mailan bai kanpo-eragileekin dituen erlazioetan. Logika hauek Lev Vygotskik «Gertuko garapen-zonan»⁶ proposatutako ikasketa-modeloekin daude erlacionaturik, zeintzuek gaitasun indibidual eta kolektiboaren garapena ahalbidetzen duten, hain zuzen ere, beren ingurune sozial⁷ edo kolektiboagatik⁸, eta horrez gain,

6 «Garapenerako zona gertua momentuko garapen-mailaren eta garapen potentzial mailaren arteko distantzia da. Momentuko garapen-maila modu independentean arazo bat ebazteko gaitasunak determinatuko du; bitartean, garapen potentzial maila heldu batek gidatuta edo iaioagoa den kide batekin kolaborazioan arazo bat ebazteko gaitasunak definitzen du» (Vygotski, 1998: 133).

7 «Haurren garapen kulturean, funtzio oro birritan agertzen da, lehenik eta behin maila sozialean eta geroago maila indibidualean: lehenengo pertsonen artean eta ondoren haurren barnean. Goi-funtzio guztiak gizakion arteko erlazio bezala sortu ohi dira» (Vygotski, 1988: 94).

8 Newman, Griffith eta Cole-k (1991) garapen-zona gertuaren kontzeptua jakintzaren eraketa-zona gisa birdefinitzen dute, subjektibotasunen arteko elkarbizitza eta topaketako espazio bat, non modu jarraitu eta progresibo batean negoziatuz, batera egindako lanak garatuz argitu eta ikasi egiten den (*learning by doing*).

lan eta ikerketa-bide berrien irekiera ahalbidetzen dute, lan kolektiboaren esparruan gehiegizko espezializazio progresibo edo mugaketa saihestuz.

Zuloark-en sortze- eta produkzio-estrategiek, hasieratik, Interneten propio diren logikekin dute erlazioa: oro har, Interneten «oparotasunaren logikak»⁹ hartzen ditu aintzat eta hackeoa, kopia+upgrade edo sampleoa bezalako kontzeptu eta tresnekin erlacionatzen dira. Logika berri horiek irekiak ez diren liburutegi fisikoetan eta jakintza entziklopediko pribatu eta esklusiboaren transmisioan oinarritzen diren kondizio elitista eta historikoak gainditzen dituzte eta ezinbestekoak dira. Hiri Eskolak, City Kitchen edo Inteligencias Colectivas bezalako p2p eta web 2.0-ren logiketarik hornitzen diren proiektu eta espazioak garatzeko.

Ondorioak

Internetek ez du soilik ekarri maila globaleko komunikazio eta jakintza eraketa-gaitasunen paradigma-aldaketa. Hasieratik, sarearen propio diren zenbait genetika erreplikatu dituzten hainbat ingurune kolektibo profesionalen egitura eta praxian ere aldaketak piztu izan ditu. Oro har, egitura horiek ikasketa eta produkzioa sozializatu eta erlacionatzen duten komunitateak osatzen dituzte. Horrez gain, konektibitate-maila altu bat dute antzeko beste erakunde batzuekin. Horrek inteligentzia kolektiboaren fenomenoan anplifikatzen du, zeinek ikertzeke dauden diziplina-eraberritza bide potentzialak ekarri dituen.

///

Bibliografia

Crabbé, O.; Müller, T.; Vercauteren, D. (2010): *Micropolíticas de los grupos. Para una ecología de las prácticas colectivas*, Traficantes de sueños, Madrid [ISBN 84-964-5345-6].

De Ugarte, D. (2009): *Filés: Democracia económica en el siglo de las redes*, El Cobre, Bartzelona [ISBN 84-965-0184-3].

De Ugarte, D. (2010): *Los futuros que vienen: La descomposición global y la importancia de la comunidad en el siglo XXI*, Sociedad Cooperativa del Arte de las Cosas [ISBN 84-614-4860-9].

ROWAN, J. (2010): *Emprendizajes en cultura: Discursos, instituciones y contradicciones de la empresarialidad cultural*, Traficantes de sueños, Madrid [ISBN 84-964-5353-1].

Vygotski, L. S. (1988): *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*, Grijalbo, Bartzelona [ISBN 84-843-2046-4].

Wenger, E. (2001): *Comunidades de práctica. Aprendizaje, significado e identidad*, Paidós, Madrid [ISBN 84-493-1111-6].

ZEMOS98; VV.AA. (2012): *Educación expandida*, Zemos98, Sevilla [ISBN 84-799-3208-4].

9 Juan Urrutiak *Ekonomiaz* aldizkarian (2001) «Redes de personas internet y la lógica de la abundancia: un paseo por la nueva economía» izeneko saiakeran (zein beranduago «Economía en porciones» liburuan berrargitaratua izan zen) sorturiko kontzeptua. Kostu- eta produkzio-egiturek zer produzitzen duten eta zer ez, eta produkzioaren emaitza batzuek edo besteek zenbatero sarbidea izango duten ebaztea (merkatu bidez, erabaki autoritarioz edo demokratikoz) beharrezkoa ez denean agertzen da oparotasunaren logika. Iturria: *El Correo de las Indias*.